GERNIKA-LUMO
2004 URTEA

# HIRUGARREN IDAZLAN KOADERNOA




LEHEN HEZKUNTZA

GERNIKA-LUMO 2004

# HIRUGARREN IDAZLAN KOADERNOA

Lehen Hezkuntza

*Argitaratzailea:*

- *Gernika-Lumoko Hezkuntza Arloa.*

*Laguntzaileak:*

- *Allende Salazar Ikastetxea.*
- *Barrutia Eskualde Ikastetxea.*
- *La Merced Ikastetxea.*
- *San Fidel Ikastola.*
- *Seber Altube Ikastola.*

*Portadaren egileak:*

- *Barrutialde Institutuko DBH4. mailako ikasleak*

*Babesleak:*

- *Gernika-Lumoko Udaleko Hezkuntza Arloa.*
- *Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)*
- *Bizkaiko  Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza).*

*Maketazioa eta Inprimaketa:*

- *GRAFICAS AMOREBIETA.*

*2004ko edizioa.*

# *AGURRA*

*Aurreko urteetan LIK eta BIK, eta aurten, 2004, HIK (“Hirugarren idazlan koadernoa”).*

*Horixe da Gernika-Lumoko ikasleek, LH-koek eta DBH-koek, hartu daben bidea, Udal Eskola Kontseiluaren koordinazioarekin eta eskoletako irakasle arduratsuen zuzendaritzapean, idazmena eta irakurzaletasuna lantzea helburu.*

*Eskolan ikasitakoaz ikaslea jabetzen bada, ikasitakoaren emoitzak aditzera emoteko euskarriak erraztea beste batzuei jagoku. Herria, familia, lagunartea eta esparru guztietan ikasleen gaitasunaz jabetzeko ahalegina egin behar dogu; gure ikasle sasoian ezin genduana egin gaur egun zelan loratzen dan konturatzea beharrezkoa da guztiontzat, hiztun gaztetxoek “askatasunean” sortzen dabena euskerearen etorkizunaren termometroa dalako.*

*Kontakizun bitxiz beteriko altxor hau dastatzeko lana bete dozuen idazleoi eta ardura izan dozuen irakasle neketsuoi, eskerrak bihotzez.*

*Marina Abadia Arraibi*
*Hezkuntza Arloko Zinegotzia*

## AURKIBIDEA


| | | | |
|---|---|---|---|
| Koldo Muñiz | L.H.1.zikloa | ***Hitz egiten zuen haritza*** | 5 |
| Nitya Lopez Saitua | L.H.1.zikloa | ***Pintxo txakurra*** | 6 |
| Kerman Arriaga Gomariz | L.H.1.zikloa | ***Naroa eta sorgina*** | 7 |
| Naroa Amezaga Velez | L.H.1.zikloa | ***Neska alaia*** | 9 |
| Jokin Abaitua | L.H.1.zikloa | ***Brokoli asko jaten zuen umea*** | 11 |
| Estibaliz Batiz Undabarrena | L.H.1.zikloa | ***Haginmotz eta Txilin*** | 12 |
| Milia Ortiz de Pinedo | L.H.1.zikloa | ***Bibotedun gizona*** | 14 |
| Xabier Lauzirika Zorrozua | L.H.1.zikloa | ***Espazioko abentura*** | 16 |
| Maider Bilbao / Jessica Urizar | L.H.1.zikloa | ***Tximeleta mendian*** | 18 |
| Irati Arrien Jauregui | L.H.1.zikloa | ***Papa Noel eta oreinak*** | 19 |
| Garbiñe Unda / Naroa Lauzirika | L.H.2.zikloa | ***Neska lodi bat, modeloa izan nahi du*** | 21 |
| Aritz Olea Urionabarrenetxea | L.H.2.zikloa | ***Arrainen ur jauzia*** | 24 |
| Iraide Jaio Ormaetxea | L.H.2.zikloa | ***Idoia eta Untxitxoa*** | 27 |
| Asier Ortuondo | L.H.2.zikloa | ***Txakur ausarta*** | 29 |
| Ainhoa Celaya Agirrezabal | L.H.2.zikloa | ***Sorgina eta baserritarrak*** | 31 |
| Aitor Elgezabal / Aritz Izagirre / Abel Armando | L.H.2.zikloa | ***Eskolatik txangoan*** | 33 |
| Nile Uribarrena | L.H.2.zikloa | ***Bi katu Marera*** | 36 |
| Mikel Elguezabal Garmendia | L.H.2.zikloa | ***Gauekoren sua*** | 38 |
| Ander Ponte Saenz | L.H.2.zikloa | ***Txerri garbia*** | 40 |
| Daniel Sanchez | L.H.2.zikloa | ***Lafkadio triste dago*** | 42 |
| Enara Urlezaga Igartua | L.H.3.zikloa | ***Basoaren sekretua*** | 44 |
| Bingen Gutierrez | L.H.3.zikloa | ***Amonaren amantala*** | 47 |
| Iraide Sierra Campillo | L.H.3.zikloa | ***Flugentzioren xelebrekeriak*** | 50 |
| Mikel Bilbao Markaida | L.H.3.zikloa | ***Zuri txakur zintzoa*** | 54 |
| Amaia Oleaga | L.H.3.zikloa | ***Maitasun txinparta*** | 58 |
| Pello Intxausti Rodrigruez | L.H.3.zikloa | ***Lau sorgin gaizto*** | 61 |
| Aiora Basterretxea Aguinaga | L.H.3.zikloa | ***Ametsetako ahizpa*** | 64 |
| Asier Arias Lucio | L.H.3.zikloa | ***Ahuntz bidaiaria*** | 67 |
| Jaione Onaindia Rodriguez | L.H.3.zikloa | ***Jonen ametsa*** | 70 |

Koldo Muñiz
"Haunditan futbolaria izan nahi dut"



Hitz egiten zuen haritza

Mikel bederatzi urteko mutil bat zen
eta Bilbon bizi zen. Egun batean parkera
joan zen eta pentsatu zuen:
-Gustatuko litzaidake zuhaitzek hitz egitea.
Bapatean ahots bat entzun zuen:
-Ba ni naiz hitz egiten duen zuhaitz bat.
Mikel ikaratu zen eta galdetu zuen:
-Nor izan da hitz egin duena?
-Ni naiz, zure atzean dagoen haritza.
Mikelek lagunei kontatu zion gertatutakoa
baina inork ez zion sinistu. Eskolatik
irteterakoan denak parkera joan ziren
eta ikusi zuten haritzak benetan egiten
zuela berba eta ordutik aurrera
batzarrak egin nahi dituztenean
haritzaren inguruan egiten dituzte.

Koldo Muñiz







Nitya Lopez Saitua
"Matematika eta kirola egitea gustatzen zait"

## Pintxo txakurra

Oso polita zen eta asko korritzen zuen. Indartsua eta bihotz onekoa zen. Oso gustura bizi zen lagunekaz baserri batean.
Egun batean mendira joan zenean hegazean herensugea ikusi zuen. Txakurrak pentsatu zuen herrira joango zela eta biak mendi puntara joatea erabaki zuen. Han sumendi bat egon zen laba botatzen, baina orduan herensugeak txakurra harrapatzea erabaki zuen. Txakurrak salto egin zuen punta batetik bestera, eta herensugea sumendi barrura jausi zen. Azkenean herensugea hil egin zen eta txakurra pozik bizi zen lagunekin.



Nitya Lopez Saitua
2. maila

Kerman Arriaga Gomariz
"Kirola egiten gustatzen zait eta futbolaria izan nahi nuke"



# Naroa eta sorgina

Bazen behin neska bat Naroa izenekoa eta berak pentsatzen zuen munduan ez zegoela sorginik eta egun batean heldu ziren karnabalak eta Naroa sorgin mozorratu zen. Atea ireki zuenean beste sorgin bat egon zen eta beregana joan eta esan zion Naroari; ze ondo zauden mozorratuta, eta erantzun zion sorginak: Klaro; ni benetakoa naizelako.

Derrepentean sorginaren erratza hegan hasi zen. Orduan benetako sorginak esan zuen:

Hemendik urrun badaude sorgin izateko ikastetxe ikastolak eta han ahal duzu ikasi, orduan ni benetakoa izango zara eta magia ikas-ten duzunean etorri nigana eta nik gehiago erakutsiko dizut eta honela munduko sorginik onena



irango zara.
Naroa'k gauetan beti entsaiatzen zuen eta
ez zuen inoiz ahaztu.
Bere majiarekin ilargira joan zen.

Herman Arriaga



Naroa Amezaga Velez

"Nire ama moduan, irakaslea izatea gustatuko litzaidake"

# NESKA ALAIA

Egun batean Amaia goiz jaiki zen ikastetxera joateko. Lehen eguna zenez, lagunak ikusteko irrikaz zegoen. Gelara heldu zenean, beste umeek opariak ekarri zituzten, Mikelen urtebetetzea zelako. Amaiak ez zuen jakin baina pentsatu zuen: Beno, etxea hurbil daukadanez, Mikeli zerbait ekarriko diot. Horrela egin zuen eta merendola itzela antolatu zuten ikasgelan.

Eta egia ala gezurra, begi bien artean sudurra.




ZORİONAK



Jokin Abaitua
"Marrazkilari famatua izan nahi dut"

# BROKOLI ASKO JATEN ZUEN UMEA

Bazen behin brokoli asko jaten zuen umea.
Gurasoek esaten zioten:
- Ez jan brokoli asko, bapo bapo eginda amaituko duzu eta.
Baina umeak ez zuenez kasurik egiten, egun baten eskolan zegoela brokolia belarrietatik urten zitzaion eta gela guztia brokoliz bete zen. Andereñoak haserraturik esan zion umeari:



- Espero dut hemendik aurrera brokoli gehiagorik ez duzula jango.
Eta hemendik aurrera ez zuen brokoli gehiagorik jan.

Jokin Abaitua



Estibaliz Batiz Undabarrena
"Nire tenperekin margotzea pilo bat gustatzen zait"

# Haginmotz eta Txilin

Bazen behin krokodilo eta suge bat. Krokodiloaren izena Haginmotz zen eta sugearena Txilin. Haginmotzek janariaren bila zebilela Txilinekin topo egin zuen. Txilin beldur zen eta ihes egin nahi zuen. Baina Haginmotzek esan zion:

-Alferrik duzu ihes egitea, ni zu baino azkarragoa naiz!

-Gose bazara nik ekarriko dizut nahi duzun guztia! esan zion Txilinek.

-Niri arrainak gustatzen zaizkit eta zuk ez dakizu igeri egiten!

-Baina ni suge-igelaria naiz! esan zion Txilinek.

-Beno, holan bada ekarri arrain mordoa!

Txilinek berehala betetu zuen agindua. Kolore eta tamaina guztietako arrainak ekarri zituen eta bion artean jan zituzten. Ordutik hona lagun handiak dira biak.

Estibaliz







Milia Ortiz de Pinedo

"Niri mendira joatea gustatzen zait baina igeri egitea ere"

# BIBOTEDUN GIZONA

Bazen behin gizon ospetsu bat. Bere izena Patxiko zen. Patxikok bibote oso luzea zeukan eta herririk-herri ibiltzen zen, herrietako biztanleei bere bibote berezia erakusten. Patxiko pozik zegoen umeak eta pertsona nagusiak irribarrez ikusten zituenean. Baina Patxikok arazo bat zeukan. Oso bakarrik sentitzen zen. Batzutan, bidai oso luzeak egiten zituen eta bideetan bakarrik zegoen. Horregatik oso triste jartzen zen.

-Laguntza emateko norbait aurkitu behar dut- pentsatzen zuen Patxikok.

Egun batean zuhaitz baten itzalan siesta eder bat egiten egon zen, eta zuhaitzaren atzetik marradun katu bat agertu zen. Patxikoren bibotetik tiraka hasi zen eta gure gizon ospetsua esnatu egin zen.

— Zer zabiltza katu madarikatua? — esan zion Patxikok katuari.

— Lagun baten bila nabil — erantzun zion katuak.

— Nirekin bizi nahi baduzu, egunero nire bibotea moztu beharko duzu. Horrela nire bibotea beti prest eta txukun egongo da.

— Ados nago. Horrela izango da.

Eta ordutik aurrera biak oso pozik bizi izan ziren.







Xabier Lauzirika Zorrozua

"Neuri gehien gustatzen zaidana futbolera jolastea da"

# Espazioko abentura.

Orain dela denbora gutxi, lau lagun: Jon, Joana, Iñaki eta Ane jolasten zeudela, burdinak, kristalak, latak, egurra eta abar aurkitu zituzten. Trastu horiek ikusterakoan Joanak esan zuen:

— Zergatik ez dugu nabe espaziala egiten?

— Ongi, ongi!! erantzun zuten beste hirurek:

Orduan lanean hasi ziren. Batek mailua, beste batek giltz ingl., besteak kola eta laugarrenak margoa eta brotxa ekarri zituzten.

Egun batzuk igaro ondoren, nabea prest zegoen. Han zihoazen gure lau lagunak!!

Espaziora heldu zirenean, Saturno, Jupiter, Marte, Pluton eta Urano ikusi zituzten.



—Marten gelditzen gara, esan zuen Sonek.
—Ez, ez Jupiterren dino Ande.
—Ba nik Saturnon nahiago dut, esan zuen Iñakik.
Berba egin eta gero ilargira joatea erabaki zuten.
Ilargian ibili zirenean zerbait zer mobitzen zela ikusi zuten. —Ene ama!! Zer izan ote da mobitzen dena? Martzianoak?!!
Baina gero hurbiltzen zihoazela astronautak zirela ikusi zuten.
Poz-pozik jarri ziren gure lagunak astronautekin batera lurrera iristeko, haien transbordadorea apurtu zen eta...

Xabier







Jessica Urizar • Maider Bilbao

"Futbito, matematika eta eskulanak egitea gustatzen zaigu"



Tximeleta mendian

Behin batean bazen, tximeleta bat Bitufa deitzen zena. Lore batean lasai-lasai bizitzen zen. Bihotz onekoa zen, umeen laguna zelako. Arratsaldero nektarren bila joaten zen eta ura ere edaten zuen. Hegoak txikiak, laranjak eta horixkak zeuzkan. Egun batean basora joan zen eta han gaueko tximeleta marroixka bat topatu zuen, erdi-negarrez lurrean jausita.

-Zer gertatzen zaizu?

-Gauean janari bila irten dot eta konturatu gabe galdu egin naiz.

-Gura duzu laguntzea?

-Bai, bai

Biak joan ziren etxera eta oso pozik bizi ziren.

Maider Bilbao
Jessica Urizar
2. maila

Irati Arrien Jauregi
"Kirola egitea gustatzen zait eta nagusitan futbolaria izan nahi nuke"



# PAPA NOEL ETA OREINAK

Behin batean zirkuko animaliak joan ziren tren zahar batean. Halako batean trena puskatu egin zen eta zirkuko animalia gehienak galdu egin ziren. Denbora gutxira Papa Noel bere oreinekin hurbildu zen animalia galduen gunera. Oreinek lehen ikusi zutenean, harazi joan ziren.

- Ez urrundu! Gu behar mantsoak gara eta ez dugu ezer egiten.

- Zer gertatu zaizue?- esan zien Papa Noelak

- Trena izorratu zaigu eta animalia gehienak galdu egin ditugu - esan zion zirkuko animalia batek.

- Denon artean aurkituko ditugu.

- Bai, ze bihar herri polit batean aktuatu behar dugu eta.



Papa Noelak bere trineora salto zuen eta oreinei esan zien:

- Ez daukagu denbora askorik! Goazen azkar galdutako animaliak bilatzen.

Papa Noelek berehala aurkitu zituen basoan beldurturik. Trineo handia zeukanez denak sartu zituen bertan eta beste animaliengana eraman zituen. Han guztiak elkartu eta aktuazioa zeukaten herrira eraman zituen. Aktuaziorako garaiz iritsi ziren. Zirkuko sarrera guztiak salduta zeuden. Herri hartako umeek oso ondo igaro zuten. Animaliak nekatuta zeudenez afaldu eta oheratu egin ziren. Egun hartatik aurrera, animaliak kamioiz bidaiatzen dituzte eta ez dira inoiz galtzen.



Naroa Lauzirika • Garbiñe Unda

"Handitan medikua izan nahi dut.
Nire gogo guztiekin egin dut ipuin hau"
"Handitan arkitektoa nahi dut izan.
Ea ipuin hau gustatzen zaizuen"





## Neska lodi bat, modeloa izan nahi du.

Behin batean, neska bat bizi zen, oso lodia zena. Gainera, herriko lodiena zen. 8 urte zituen eta 40 kilo pisatzen zituen.

Egun batean, aita eta amarekin modeloen desfile batera joan zen. Modelo guztiak oso argalak ziren. Inbidia zien modeloei. Desfilea bukatu ondoren, etxera joan ziren. Etxean neskak gauza bat esan zion:



-Ama nik ere modeloa izan nahi dut.

- Ba, izango zara handitan.

Orduan, neskatxa pentsatzen hasi zen denbora osoan, ea noiz helduko zen handia izatera.

20 urte pasatu ondoren, neskatxa oso handia zen eta heldu zaion modelo izateko unea. Baina oso lodia zen oraindik eta modeloak

oso argalak ziren. Orduan dietari ekin zion. Baina oso lodia zen orain-
-dik eta mediku batengana joan zen. Medikuak esan zion dieta bai,
baina kirola ere bai egin behar zuela. Orduan kiroldegira joatzen hasi zen
egunero.




Baina, oraindik modeloa izateko azterketa batzuk egin behar zituen.
Modeloen akademiara joan zen azterketak egitera. Egin zituen az-
terketak eta denak gainditu zituen. Gero, esan zioten aste bat itxa-
roteko. Aste bat pasatu zen eta orain akademiara joan zen. Akade-
-miara joan eta hurrengo egunean joateko arropak prestatzera.
Heldu zen hurrengo eguna eta harriturik gelditu zen arro-
pak ikusterakoan. Heldu zen desfilearen eguna eta denok berari
ikustera joan giren.



Handik aurrera, modelorik famatuena izan zen. Gero, liburu bat egin zuen, zelakoa izan zen bere bizitza modeloa izateko. Liburuan




bere bizitzako gauza txarrak eta onak agertzen ziren. Adibidez, txikitan oso lodia zela eta orain, berriz, oso oso argala dela.



10 urte pasatu ondoren, beste liburu bat egin zuen. Zelan, lortu al den modelo bat izatea.

Idazleak: Naroa eta Garbiñe
Margolariak: Naroa eta Garbiñe

Garbiñe    Naroa Lauzirika



Aritz Olea Urionabarrenetxea
"Irakurtzea gustoko dot"

# Arrainen ur jauzia

Bazen behin, mendi handi batean ur jauzi polit bat. Jende ugari hurbiltzen zen bertara, zein udan, zein neguan, urte osoan zehar.

Goiz eder batean, txango bat egitera zihoazen autobus bete zahar eta gazte heldu ziren egun guztirako.

Ur jauzira iritsi zirenean, jabetu ziren haren liluragarritasunaz. Eguerdirako bero galanta zegoen eta gaztetxoek bertara salto egin zuten.

Freskatu zirenean, uretatik irten eta soka saltoka hasi ziren kanta hau abestuz:

Urteak ditu
hamabi hilabete:
Urtarrila, Otsaila...



Bitartean, nagusiak kontu kontari zeuden.

Egun ederra pasatu eta etxera itzultzeko ordua heldu zenean, autobusak ez zuen arrankatzen.

-Zer egingo dugu?- galdetu zuen batek.

-Hi, utzi ezak sega potoa, mesedez, nagusiari deitu behar diot eta!

Nagusiak, bihar arte ezin zuela beste autobusik bidali- erantzun zion.

Orduan, gaua pasatzeko eta bero-berotan egoteko sua piztu zuten eta hantxe egon ziren kontu kontari loak hartu arte.

Eguna argitu zenean, Patxik ekarritako kainaberagaz eta sareagaz ur jauzira joan ziren janari bila.

Ordutan, han aritu ziren arrainak harrapatzen. Guztien artean, zortzi arrain harrapatu zituzten eta gosez amorratzen zeudenez, denak jan zituzten.

Azkenean, beste autobusa heldu zenean

